

Stakeholder capitalism edo kapitalismo “berria”



JUAN MARI ARREGI

Sistema kapitalistaren barruan bada kapitalismo “berri” baten alde egiten dutenak, austeroagoa, gizatiarragoa, sozialagoa, berdeagoa. Gehien sustatzen ari dena Klaus Schwab da, Munduko Ekonomia Foroaren sortzaile eta presidente exekutibo eta Davosko Foroaren arduraduna. Foro horren goi-bileran biltzen da, urtarrila amaieran, munduko kapitalismoaren elitea. Harena da *Stakeholder capitalism* ingelesezko terminoa, “alde interesdunen kapitalismoa” bezala itzultzen duena, “akziodunen kapitalismoaren” aurrean.

Herritarrek kapitalismoa gero eta gehiago gaitzesten dutela jabetuta, kapitalismo “berriaren” aldekoek uste dute enpresa erakunde sozial bat dela, irabazi-asmoa duen erakunde bat izateaz gain. Onartzen dute enpresek zergen ehuneko ekitatiboa ordaintzea, ustelkeriarekiko zero tolerantzia erakustea eta giza eskubideak errespetatzea beren munduko hornidura-kateetan, baita beren exekutiboen ordainsari-mailak doitzea ere. Munduaren egoera hobetzeko interesa dutenekin lan egitearen alde agertu dira.

Posible al da sistema kapitalista barrutik erreformatzea? Kapitalismo “berri” baten bila dabiltzanek, hura betiketzea nahi dute, aurpegi gizatiarrago, sozialago eta are ekologikoagoa eskainiz, herritarrek, bereziki egungo gazteek, sistemara egokitu eta beren gain har dezaten. Kapitalismo horren alde egiten dutenak, beren ordainsari-mailak ere murriztuz, planeta menperatzen jarraitu nahi dute. Euren ekoizpen eta finantza eredu eusten jarraitu nahi dute, ahalik eta etekin handiena izateko. Gobernuak haien eskuetan eduki nahi dituzte, hain zuzen ere, sistema kapitalistari eusteko.

Erreforma sakonak eginagatik ere, inoiz ez dio kapitalismoa izateari utziko. Bere DNA basatia da, beti izango da bera! ●



HALA BEDI

EL CORTE INGLESEN KATEATU ZEN SAMANIEGO, BERE ESPETXERATZEA SALAKETA EKINTZA MASIBO BIHURTUZ.

Ekaitz Samaniego etxean. Besteak?

ZIGOR OLEAGA

Ekaitz Samaniego preso dago lerro hauek idazten ari naizela, baina preso ohia izango da testua argitaratzerako. 2012ko urtarrilaren 14an ikusi nuen azkenengoz kalean. Manifestazio jendetsu baten ostean eraman zuen Ertzaintzak, bi aste ezkutuan eman ostean. Ehunka herritarren amorru, maitasun eta ezintasun malkoen artean. Orduko bizipenak burubihotzean iltzatuta geratu zaizkigu babes eta salaketa kanpaina desobediente hartan parte hartu genuen guztioi: lagunak, militantzia kideak, gasteiztar solidarioak, Domi, Txiro eta gainontzeko senideak. Aurore Martinen aldeko ekimena igarora zen ordurako, gerora etorriko ziren Oretako gazteen aldekoa eta Donostia, Ondarroa, Iruñea, Loiola eta Gasteizko herri harresiak, besteak beste. Haien ahalmen askatzailea behar beste zukutu aurretik eten ziren esperientzia haiek.

Samaniego kalean da. Zortzi urtetako zigorra oso-osorik eta lekutan bete ondoren. Espainiako Auzitegi Nazionalak ezarri zion zigorra eta Gorenak berretsi. Frogatzen onartuta, esaterako, izar gorridun kamiseta bat (izardun kamiseta; beraz SEGItza; beraz terrorista). Ekaitzek ez du izango barkamenik, ez erreparaziorik, ez aitortzarik. Hau irakurtzen denerako, ordea, maitasuna eta esker ona adierazia izango diogu askok Gasteizko kaleetan eta Gaztetxean –demokraziak eta demokratik baimenduz gero beti ere, amen–. Kalean dago Samaniego, baina 244 kide barruan utzita.

Denbora aurka doa gatazkaren ondorioen eremuan. Samaniegoren irteerak kolektiboaren batez besteko adin kezkarri altua are gehiago igoko du. Jose Ramón López de Abetxuko preso gaixo ohiak Gasteizko Unibertsitateko Campusean eman zuen hitzaldian, gazte asko zegoen entzule –inkisizio politiko mediatikoak hauspotuta, esango nuke–. Zer ote dira euskal preso politikoak gatazka armatua bizi izan ez duten gazte hauentzat, zer lotura politiko edo emozional mota senti dezakete haiekin? Presoekin eta iheslariekin bestelako garai batzuen borroka edo sinpleki bizipenak partekatzen ditugun aurreko belaunaldiok, behintzat, ez ditzagula espetxean, erbestean edo ahanzturan galtzen utzi. Ardura historiko eta kolektiboa dago hor; baikoitzak jakingo du zer neurritan eta nola interpelatzen dion. Ospatu dezagun azken egunetan Agurtzane Delgadok, Jon Urretabizkaik eta Ekaitz Samaniegok berreskuratutako askatasuna; borrokatu dezagun beste guztiena. Askozaz gehiago beharko da, baina momentuz bederen, bete ditzagun Bilboko kaleak urtarrilaren 11n. ●